

Proiektua

“Bakeleku Udalekua Larrabetzu-Bizkaia”

2018



ARDURADUN ELKARTEAK

 <p>R.A.S.D.</p>	<p>DELEGACIÓN DEL FRENTE POLISARIO EN EUSKADI EUSKADIKO SAHARUIEN ORDEZKARITZA "Portal del Rey" kalea,8 - 2.D 01001 Vitoria-Gasteiz Araba</p>
	<p>BAKELEKU UDALEKUA BIZKAIA NIF- G95746475 Landutxu eskola, 1 Barrio Arriaga 48950 Erandio Bizkaia</p>
 <p>Zumaiako <i>Darahlí</i> Elkarte</p>	<p>ZUMAIAKO DARAHLI ELKARTEA NIF- G20943403 Alondegia Kultur Etxea, Erribera kalea , 23 20750 Zumaia Gipuzkoa</p>



AURKIBIDEA

SARRERA	3
"BAKELEKU" UDALEKUA PROIEKTUA	4
PROIEKTUAREN PLANGINTZA	6
PROIEKTUAREN HELBURUAK	7
BALIABIDEAK	8
EBALUAZIOA	9
KRONOGRAMA	10
AURREKONTUA	11
ERANSKINAK: Ekintzen argazkiak.....	12



SARRERA

Ia 42 urte igaro dira gizarte saharaiak banatzeko erabaki latza hartu behar izan zuenetik; ordutik hona, Aljeriako Tinduf inguruko errefuxiatuen kanpamenduetan, lurralde liberatuan eta Marokoren okupazio pean dagoen Mendebaldeko Saharako lurretan bizi dira.

Inolako zalantzarik gabe, saharaien egoera arazo politikoa da.

Ondorioz, Saharako herritarren alde egotera behartuta gaude moralki, haiei laguntzera, eta gatazka konpondu arte haiekin bat egitera.

Urte hauetan guztietan, Tindufeko kanpamenduetan bizi diren errefuxiatu saharaiak nazioarteko laguntzari esker biziraun izan dute, eta halaxe jarraitzen dute oraindik ere.

Gaur egun, ordea, oinarrizko beharrian horiek asetzea lan zaila da. Urtetik urtera laguntzak murriztu egiten dira, bai erakunde publikoetakoak bai arlo pribatukoak.

Eta horren guztiaren ondorio larrietako bat -errefuxiatuengan eragin handia duelako- biltzen diren oinarri-oinarrizko elikagaien kopurua murriztu izana da.

Euskal herritarrek eta hainbat eta hainbat elkartek argi erakutsi izan dute Saharako herritarrekiko atxikimendua eta elkartasuna.

Elkarteetako bakoitzak bere erara jarduten du, baina guztiek bat egiten dute honako bi egitarau hauetan:

- 1) Elikagaien karabanarako negu aldean egiten den oinarrizko elikagaien bilketa, eta bildutakoa errefuxiatuen kanpamenduetara bidaltzea.
- 2) "Oporrak Bakean" programa.

Eta azken programa horretan kokatzen da jarraian aurkeztuko dizuegun

"Bakeleku Udalekua Bizkaia" proiektua.



“BAKELEKU UDAKELUA” BIZKAIA proiektua

“Oporrak Bakean” programaren bidez, errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren milaka eta milaka haur saharauik basamortu gordin hura utzi eta, beste edozein umeren antzera, bi hilabeteko “oporraldia” igarotzen du Euskal Herrian.

“Oporrak Bakean” programa haur saharaiengan hautemandako premiei erantzuteko sortu zen.

“Oporrak Bakean” programak bi helburu ditu:

1) 8 eta 12 urte bitarteko ahalik eta haur saharai gehien ateratzea errefuxiatuen kanpamenduetatik. Horrela, Aljeriako basamortu gordin horretan udan izaten den bero jasanezinetik libratzen baititugu.

2) Saharako Herriak bizi duen gatazkaren berri ematea.

Horrela, Euskal kultura eta kultura saharaiaren arteko trukea egiten dugu, Kooperazioa indartzen da, eta Euskal erakundearen eta Saharaiaren artean berdinkidetasunezko tratua izaten da, biak ala biak ere estaturik gabeko Nazio diren aldetik.

Hau dela eta, programa hori oso garrantzitsua da haurrentzat, baina baita biztanle saharai guztientzat ere.

“BAKELEKU UDALEKUA LARRABETZU-BIZKAIA” PROIEKTUA

Gure udalekua Bizkaiko Larrabetzu herrian kokatuta dago, hain zuzen ere, Larrabetzuko ikastetxe publikoan, Lehendakari Agirre kalean. Ikastetxeak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak ditu eta haientzat behar diren zerbitzu guztiak.

Errefuxiatuen kanpamenduetako haurrek Bizkaia lehenengoz bisitatu zutenetik 28 urte igaro dira. Hasiara batean familietan eta azken sei urtetan kanpamentuetan ere.



“BAKELEKU UDAKELUA” BIZKAIA proiektua

“Bakeleku Udalekua Bizkaia” proiektua 2011n sortu zuten Saharako Herritarren bidezko borrokarekin solidarioak diren hainbat lagunek.

Proiektua bideragarria zen aztertze eta behar bezala gauzatzeko hainbat bilera elkarte ezberdinen artean egin ziren. Frente Polisarioa izan dugu lankide une oro, eta, ondorioz, erabaki guztiak haien oniritziarekin hartu dira.

“Bakeleku Udalekua Bizkaia” proiektua bi helbururekin sortua da; alde batetik, udan harrera-familiak duten garrantzia azpimarratzeko, eta bestetik, errefuxiatuen kanpamenduetatik ahalik eta haur gehien irten daitezen.

Urtetik urtera, udan haur saharaiantzako harrera-familiak lortzea gero eta zailagoa denez, azken urte hauetan udalekua formula aurrera eraman dugu.

“Bakeleku Udalekua Bizkaia” proiektuak 10 eta 12 urte bitarteko 30 haur saharai hartuko ditu, neskak eta mutilak.

Bertan ematen duten denboran, gure proiektuan parte hartzen duten hurrek honako laguntzaile talde hau izango dute: sukaldari bat, zortzi begirale boluntarioak (sei bertako gazte eta bi gazte saharai) eta proiektuarekin bat egiten duten lankide solidarioen unean uneko laguntza.



“BAKELEKU UDALEKUA LARRABETZU-BIZKAIA”

PROIEKTUAREN PLANGINTZA

*“Bakeleku Udalekua” proiektuari esker, Udalekuan parte hartzen duten haurrek dieta orekatua izango dute udako hilabete horietan.

Horri esker, hainbat osasun-arazori aurrea hartzerik izango dute (anemia, desnutrizioa, diabetes, hotzeria, etab.), eta basamortuko negu gogorrean irauteko defentsak indartuko dituzte.

* Bertan parte hartzen duten haur saharaei ere mediku azterketak egingo zaizkie. Azterketa horiek prebentziorako balio dute, baina sintomaren bat hauteman ez gero, ahalik eta lasterren osatze bidean jarriko dira.

Udako egonaldian zehar hainbat osasun-arazo hauteman daitezke, eta horietako batzuk tratatu ezean, etorkizunean arazo larria izan daitezke haurrarentzat.

* Hezkuntza-jarduerak ere gauzatzen dira bertan:

Hassania ez den beste hizkuntza batzuk ikasteko eta erabiltzeko aukera izango dute; euskara eta gaztelania. Eurenak ez bezalako ohitura eta bizimoduak ikasi eta ezagutuko dituzte.

Txangoak ere egingo dituzte; parke naturaletara, kultur gunetara, udaletxeetara, herrietara, hondartzara, mendira... Finean, Euskal Herriko beste hainbat haurrekin batera bizi izango dute aldi hori, desberdintasunik gabe.

Azkenik, “Bakeleku Udalekua” proiektuaren bidez, haur horiek Saharako Herriak bizi duen egoeraren berri ematen dute, eta euren herrialdearen, kulturaren eta gatazkaren enbaxadore txiki bihurtzen dira. Hots, udako bi hilabete horietan bi kulturaren arteko elkarbizitza izango da, eta askatasuneranzko bidean aurrera doazen gure bi herrien arteko elkartasunezko lotura indartu egingo da.



“BAKELEKU UDAKELUA” PROIEKTUAREN HELBURUAK

Helburu nagusiak

- 1) “Bakeleku Udalekua” proiektuan parte hartuko duten haurren kopuruari eustea, edo kopurua handitzea.
- 2) Uztail eta abuztuan, ahalik eta haur errefuxiatu saharai gehienari ematea basamortutik irteteko aukera.
- 3) Haur errefuxiatu saharaien bizi-kalitatea hobetzea.
- 4) Haur guztiei mediku azterketak egitea.
- 5) Euskal kultura ezagutaraztea.

Helburu zehatzak

- 1) Euren ohiko ingurutik hain desberdina den giroan oporrak gozatzeko aukera ematea.
- 2) Gure artean emandako bi hilabete horietan izandako elikadura orekatuari esker, basamortuan eman behar dituzten gainerako 10 hilabeteak eramangarriagoak izatea, osasun azterketa egokia egitea, etab.
- 3) Heziketan laguntza eskaintzea.
- 4) Liburuetatik ikasi dutena aurrez aurre ezagutzeko aukera ematea: ibaiak, hondartzak, mendiak,...
- 5) Basamortuko urtaro gogor horren aldean, uda atsegina igaroaraztea.
- 6) Euskal gizartea Saharako gatazkaren aurrean sentsibilizatzea.



BALIABIDEAK

Giza Baliabideak

- 1) "Bakeleku Udalekua" lan-taldean bidez eramango da aurrera eta talde bakoitzean koordinatzailea egongo da.
- 2) Asteko txandak izango dira, eta koordinatzaile bat, sukaldari bat eta zortzi begirale izango dira txanda bakoitzean; sei euskaldun eta bi saharai.
- 3) Monitore guztiak boluntarioak dira. Bi monitore saharaiak gure hizkuntza eta ohiturak ongi ezagutzen dutenak dira eta bi hilabete osoak pasako dute.
- 4) "Bakeleku Udalekua" proiektuaren arduradunak aisialdiko hezkuntza-arloan eskarmentu handia duten pertsonak dira.

Baliabide ekonomikoak

"Bakeleku Udalekua" proiektuaren aurrekontuari aurre egiteko, hainbat euskal erakunde publikori, zein pribaturi lankidetzak eskatuko zaie. Finantzaketa-iturriak bilatzeko ere bestelako jarduerak egingo dira.



EBALUAZIOA

- "Bakeleku Udalekua" proiektuan zehar, arduradunek aldian-aldian bilerak egingo dituzte sor litezkeen arazoei erantzuteko eta eguneroko lanean egin beharreko hobekuntzak egiteko.
- **Akta Koadernoak:** Eguneko martxa eta ekintzak baloratzeko gauero bilduko dira monitoreak, bertako koaderno-aktan idatzita geratzen delarik.
- **Ebaluaziorako parametroak**, honako hauek hartuko dira kontuan:
 - Hurrekin batera egindako egonaldiari buruzko balorazioa, eta sortu ahal izan diren arazoei emandako konponbidea.
 - Egindako jarduerak.
 - Begiraleek egindako lana.
 - Taldekideen arteko harremana.
 - Sortutako arazoak.
 - Hobekuntzarako proposamenak.
- "Bakeleku Udalekua" proiektua osatzen duen taldeak irailan egingo du **ebaluazio orokorra**, eta egindako lan guztiaren berri azaroan aurkeztuko duten **memoria** batean emango da.



KRONOGRAMA

2018ko URTARRILA	- "Bakeleku Udalekua" proiektuaren hasiera.
2018ko OTSAILA	- "Bakeleku Udalekua" proiektua Euskal Herriko administrazio publikoetan eta erakunde pribatuetan aurkeztuko da.
2018ko MARTXOA, APIRILA eta MAIATZA	- Ekintzak eta finantzaketa-iturriak bilatzea. - Monitoreen formazioa. - Materialaren bilketa ikastetxeetan eta zentro komertzialetan: arropa, janaria, garbitzekoa,...
2018ko EKAINA	- Erabiliko ditugun instalazioen prestaketa-lanak. - Egingo diren ekintzak eta bisitak zehaztuko dira. - Material didaktikoa eta ekintza osagarrien prestaketa. - Materialaren bilketa ikastetxeetan eta zentro komertzialetan: arropa, janaria, garbitzekoa,...
2018ko UZTAILA- ABUZTUA	Ume saharaiuen taldea udalekuan egongo da.
2018ko IRAILA, URRIA, AZAROA	Proiektuaren ebaluazio orokorra. Memoria egitea. Gastuen zuriketa.



AURREKONTUA

Azalpena	Unitateak	Kopurua	Guztira
Udalekuko egoitzaren prestatze-lanak			2.000 €
Errefuxiatuen kanpamenduetarako bidaiak, "Oporrak Bakean" proiektu nagusiko arduradunei proiektu honen berri emateko.	2	800 €	1.600 €
Haurren bidaiak eta bisatuak.	30	700 €	21.000 €
Umeen familia bakoitzari 100 €ko laguntza ekonomikoa	30	100 €	3.000 €
Jarduerak (Erakunde publiko eta pribatuen bisitak, parke naturalen bisitak, hondartzara eta mendirako irteerak, etab.).			2.000 €
Garraioa (busa edo trenak): - Udaleku egoitzatik ekintza egingo den lekura, bisita kulturalak, hondartzara, ... - Proiektua prestatzeko eta ebaluazioa egiteko garraioak.			4.000 €
Janaria 2 hilerako, 10 euro egun eta pertsona bakoitzeko: 30 haur, sukaldaria eta 6 begirale.			22.200 €
Jantziak eta garbiketarako produktuak			2.500 €
Giza baliabideak (kolaboratzaileentzako laguntzak, gasolina, bidaiak)			1.500 €
Bestelako gastuak (telefonoa, fotokopiak, etab).			600 €
GUZTIRA			60.400 €

PROIEKTUKO FINANTZIAZIOAN LAGUNTZEKO

- Kontu Korrenteak:

LABORAL Kutxa - ES05 3035 0037 4103 7005 0791

CAIXABANK - ES63 2100 4248 6621 0014 7895

KUTXABANK - ES08 2095 5174 9091 1793 1051

- Proiektuko arduradun ekonomikoa:

SAMUEL RUIZ Telef. 605701463



ERANSKINAK: EKINTZEN ARGAZKIAK

